



ELIKAGAIAK EKOIZTEKO LANDA-LURRA: EZAUGARRIAK ETA GAITASUNA

EREDU ESTANDAR BATEN BILA
ERRIGOITI UDALERRIA

2018ko URRIA



Egileak:

Babesleak:

0. AURKIBIDEA

1. SAR HITZA.....	5
2. LURRA ETA ELIKADURA.....	7
3. LABURPEN EXEKUTIBOA.....	9
4. ELIKAGAIEN ESKARIA.....	13
4.1. HERRITAR EGOILIARREN ELIKAGAIEN KONTSUMO BEHARRA.....	15
4.2. HERRITAR EGOILARREN ELIKAGAIEN KONTSUMO BOLUMENA.....	17
4.3. HERRITAR EGOILARREN ELIKAGAIEN KONTSUMO GASTUA.....	21
5. LEHEN SEKTOREAREN DIAGNOSTIKOA.....	25
5.1. LEHEN SEKTOREAREN NEGOZIO-ZIFRA.....	27
5.2. LEHEN SEKTOREKO ENPLEGU SORRERA.....	28
5.3. LEHEN SEKTOREKO EHUN EKONOMIKOA.....	29
6. LURRAREN DIAGNOSTIKOA.....	33
6.1. LURRAREN EGITURA OROKORRA ETA ORGANIKOA.....	35
6.2. LURRAREN EGITURA ETA LANDA LURRAREN ERABILERA.....	39
6.3. BASOAREN EGITURA.....	41
6.4. LANDA LURRAREN EZAUGARRI NAGUSIAK.....	43
6.4.1. ERREPIDEEN GERTUTASUNA.....	43
6.4.2. ITURBURUEN GERTUTASUNA.....	43
6.4.3. LURRAREN ORIENTAZIOA.....	45
6.4.4. LURRAREN MALDA.....	45



7. ELIKAGAIEN EKOIZPENERAKO LURRAREN DIAGNOSTIKOA.....	47
7.1. BARATZEGINTZARAKO LURREN EGOKITASUNA.....	49
7.2. FRUTAGINTZARAKO LURREN EGOKITASUNA.....	51
7.3. ABELTZAINZARAKO LURREN EGOKITASUNA.....	53
7.4. BASOLARREGINTZARAKO LURREN EGOKITASUNA.....	54
8. HORNIKUNTZARAKO GAITASUNA ETA LURRAREN POTENTZIALITATEA.....	57
8.1. HERRITARREN ELIKADURARAKO LURRAREN ERABILERA ETA BALIZKO AHALMENA	59
8.2. ELIKAGAIEN AUTOHORNIKUNTZA BEHARRA ETA AUKERA.....	61
8.3. LAN UNITATEAK ELIKAGAIEN AUTOHORNIKUNTZAN.....	64



1. SAR HITZA

Udalerri baten etorkizuna irudikatzen denean Hiri Antolaketako Plan Orokorrak (HAPO) aintzat hartzen du udalerriari espero zaion bilakaera, izan bilakaera naturala edo joera indartsuagoen eragina.

Gauzak horrela arrazoizko epe baten barruan gauzatuko den plan orokorra zehazten du, zeinak zehazten duen zein jarduera egin behar diren bizileku mailan, jarduera ekonomikoei eskainitako eremuari dagokionez edo sistema orokorreari dagokionez.

Inguru naturala babes handikoa izan arren, “ez urbanizagarri” izan ohi da kalifikazio nagusia eta katalogatutako biotopo eta elementu berezietan harago, ez du ezartzen zer izan behar duen etorkizunean.

Azken bi hamarkadetako bilakaerari so, ordea, eremu “ez urbanizagarria” kategoria malgua dela ikusi dugu, hazkunde urbanistikoak behar duenean bere egiten duen eremua.

Horrela, hedapen urbanistikoak beretzat hartu ditu udalerrien inguruko eremu zabalak. Baliteke horiek guztiak beharrezkoak izatea, baliteke beste alternatiba batzuetarako aukera egotea, baina azpimarratzekoa da eztabaida horretan falta izan dela aldagai nagusi bat: zein lur gorde eta babestu behar dira, orain edo etorkizunean elikagaiak ekoizteko? Galdera horri erantzun gabe, galdera bera mahai gainean jarri gabe hartu dira hainbat erabaki, gehiengoz.

Landa lurra, ordea, mugatua da, are mugatuagoa baratzegintzarako eta goldatzeko lurra. Zentzu horretan, HAPOren moduko eragiketa batek biotopo eta gainerako natura berezitasunak betikotzeko ahalegina egiten duen moduan, landa-lurra betikotzeko ahalegina egin beharko luke, galerak ahalik eta gehien murriztuz eta dagoeneko eraikita dagoena berrerabiliz.

Esku artean duzunak ariketa horretan lagundu nahi luke. Txosten honen izaera esperimental da eta zuon guztion laguntzarekin hobetuz, Euskal Herriko HAPO nahiz lurraldea antolatzeko bestelako edozein eragiketa egitean lagungarri izan nahiko lukeen eredu bat eskaini nahi genuke.

Txosten honek udalerriko dimentsio sozioekonomiko nagusiak (eskaria eta sektorearen desmartxa) eta lurraren ezaugarriak (berez dituen ezaugarriak eta gaur egun ematen zaion erabilera) biltzen ditu. Horren bitartez, HAPOaren prozesuan parte hartzen duen herritarrak bere esku izango ditu elikagaien kontsumo eta ekoizpenari lotutako balio nagusiak.

Esandakoak agerian jartzen du gure hirigintzaren gabezia handi bat: lurrari eta elikagaien ekoizpenari eskaintzen zaion arreta eskasa. Hori bera, ordea, erronka ilusionagarri bat bihurtu zaigu bizi garen garai honetan, udalerri eta eskualdeak gai izango ote dira bere landa lurra ongi kudeatuz bere biztanleak hornitzeko? Ukaezina da elikagai osasuntsuen premiaz gain, zirkuitu laburrek, landa lurraren kudeaketak, elikagaien transformazioak, enplegu sorrerak... lehen mailako ondasuna dakartela horren alde egiten duten udalerri eta eskualdeetan.

Balio beza lan honek eztabaida horretan herritarrak informatzeko eta planeamendu mailako erabakietan argibideak eskaintzeko. Edonola ere, esperientzia pilotua izanda, zuon guztion ekarpen beharrean dago.



2. LURRA ETA ELIKADURA

Esku artean duzuna ahalegin esperimental jakin baten emaitza da. Gaindegia eta Bizkaiko EHNEren artean Errigoiti, Elorrio, Karrantza eta Larrabetzuko udalerrien azterketa egin dugu.

Galdera nagusi bati erantzun nahi izan diogu: Zein da udalerri bakoitzaren gaitasuna elikagaiak sortzeari dagokionez? Galdera horren erantzuna, ordea, norabide jakin batean marraztu nahi izan dugu: Udalerriaren egitasmo estrategikoetan lurrak komunitatearen zein pertsonen ongizaterako duen balioa azaleratzea.

Gure kezkak oinarri sendoa du. Hamarkada luzeak bizi izan ditugu zeinetan baserritarren lanaren fruitua gutxietsi egin dugu, gure hozkailuak urruneko jakiz bete diren eta lur eremu zabala artifiziozatu den etxebizitzak zein azpiegitura berriak eraikitzeak. Horrek, halaber, ondorio nabarmenak izan ditu: baserritar gutxiago, baserriak galdu, bertako elikagaien kontsumoa amildu, landa lurren zaintza narrastu... Gure herriaren kulturak asko du lurretik (espazio kuttunak, kultur eta kirol jarduerak, elikagai paregabeak...) baina azken 50 urtetako ibilbideak eten egin du lotura hori. Lurrik eta baserritarrik gabeko Herria izateko bidea hartu dugu.

XXI. mendeak, ordea, argi gorriak piztu dizkigu, iraunkortasuna beharrezkoa zaigu gure Munduak iraun dezan, nekazaritza iraunkorra ere bai. Errebisatu beharrean gaude, beraz, gure uste eta egiteko erak. Baserritarrok alde horretatik badugu zer eskaini eta zer aldarrikatu euskal gizartea parametro berrietan jokatzen has dadin. Landa lurraren kontserbazioari eta honek elikagaiak ekoizteko duen balioari izaera estrategikoa aitortu behar diogu bailaraz bailara, ondasun ahigarria denez.

Badakigu, ordea, elikatzea fenomeno zabala dela, askotariko eragile eta prozesuak dituela bere baitan. Zinez, elikatzeak moduak lurraldea fisikoki eta sozioekonomikoki egituratzen du (norabide batean edo bestean, hautatzen den ereduaren arabera). Badakigu, halaber, bide horretan baserritarrak eta herritarrok topo egin beharko dugula, bai ekoizpenean, bai kontsumoan, baina baita herri eta eskualdetako planifikazio estrategikoan ere, hori izango da elikaduratik lurraldea iraunkortasunez baldintzatzeko bidea. Besteak beste, hirigintza planeamenduetan. Garatu dugun metodologiak bide horretan herritarrek jabetu eta landa lurraren ezagumendua garatzen laguntzea nahi genuke.

Asmo horrekin garatu dugu egitasmo hau. Honaino helduta, ordea, ziur gaude etorkizunean baserritar eta adituen laguntzarekin eredu osatu eta sendotzeko bide emankorra egingo dugula. Esku artean duzun honek lanerako proposamena izan nahi luke.







Laburpen exekutiboa

Atal honetan txostenaren laburpena topatuko duzu. Bertan, azterketaren datu esanguratsuenak azaltzeaz gain, azterlanaren sintesia topatuko duzu.

Errigoitiko herrian arreta jarriaz, azterlan honek ondorio ugari utzi dizkigu (xehetasunak ezagutzeko jo txostenera), zeinak elikadura estrategia iraunkor baten diseinuan baliagarrian izatea espero den. Laburrean, esan daiteke, Errigoitik elikagaiak ekoitzi eta autohornikuntza maila handitzeko beharra eta aukera zabalak dituela:

1. Elikatzeko ohiturak aldatzen ari diren arren, herritarren lehentasunetan elikagai freskoa da nagusi eta bertan ekoizteko moduko elikagaien proportzioa altua da egungo kontsumo joeretan. Horrek aukera bikaina eskaintzen du datozen urtetarako aurreikusten den biztanleria beherakadari aurre egiteko. Lehen sektorearen aldeko apustuak nekazari gazteak erakarri eta enplegu berriak sor baititzake, honela, saldo migratorio negatiboa irauliz.
2. Elikadurak Errigoitin eragiten duen mugimendu ekonomikoari erreparatuz gero bere inguru hurbila baino egoera hobean aurkitzen dela esan daiteke (BPGren %12,6a, enpleguaren %3a, eta ehun ekonomikoaren %11,1a). Hala ere, azken urtetan lehen sektoreak nahiko egoera ez egonkorra bizitu izan du, kasu gehienetan joera negatiboa izanik (enplegua, ehun ekonomikoa...). Hori eraldatzeko Errigoitik dituen aukerak zabalak dira. Esaterako, baratze gintzarako egokiak diren lurren %98a ez da helburu horretarako baliatzen eta frutagintzarako egokia den eremuaren %90a ere ez. Larreen kasuan erdia baino zerbait gehiago ez dira baliatzen.
3. Helburu hori erabat bideragarria da, Errigoitik duen landa-lur ondarea aintzat hartuz gero (1.616 hektarea “urbanizaezin” izendatuta daude, udalerriaren %97a). Hala ere, eremu zabalena zuraren ekoizpenera bideratu izanak eta lur emankorrenak bizitokiengatik okupatu izanak, elikagaien ekoizpenerako gaitasuna murriztu du, etorkizun hurbileko arriskua erakutsiz.
4. Basoek azalera handia hartzen badute ere (1.184 hektarea) gehiena Radiata Pinuaren landaketak dira (762,2 ha.) eta Baso azaleraren %12,5a baso naturala da (146,9 ha). Pinuaren eragina eta bizi duen gaitza kontuan hartuz, aukera egokiak daude, beste landaketa batzuetara jotzeko (bertako espezieak eta polikultiboak) eta nahi izatera “basolarregintzara” bideratzeko, hots, zura eta abeltzaintza uztartzekoa.
5. Funtzionaltasun maila handiko landa lurra du Errigoitik, besteak beste, bide berriak zabaltzen ibili beharrik izan gabe erabilgarri baititu partzela gehienak. Iturburuaren eskuragarritasuna ez da horren erosoia, baina hala ere, aipatzekoa da iturburu bat hurbil duten partzelen kopurua (%53,3). Lurren orientazioaz nabardura handiagoak egin behar dira, izan ere, lurren erdiak hegoaldeko orientazioa badu ere, azaleraren 3/4a baino gehiagok (%81,5) %12tik gorako malda du. Beraz, funtzionaltasun mailarik handieneko partzelak katalogatu eta babesteko lan garrantzitsua du Errigoitik, baldin eta establezimendu berriak ezartzea nahi badu.
6. Baratze gintzarako lurren egokitasuna esanguratsua da (98,2 ha. egoki edo oso egokiak, nahiz eta 1,96ha. bakarrik enplegatu egun). Topografia malkartsua izanagatik ere, jarduera honen aktibaziorako egokitasuna gaur egungo baino nabarmen handiagoa da. Bestalde, Errigoitiko bizitokiak nahiko barreiatuak egon arren, adierazgarria da nola barazkien ekoizpenerako lur egokiak eremu hauetatik hurbil kokatzen diren. Horrek, “OKm” paradigma inplementatzeko aukera ematen du.



7. Frutagintzarako lurri dagokienez, baratzegintzarako lurrekin gertatu bezala, egokitasun altuko azalera nabarmen handitzen da gaur egungo erabilerarekin alderatuta. Lur hauek ere lurralde osoan zehar barreiatzen badira ere bizitokietatik gertu kokatzen dira. Horrek bertatik bertarako fruituen ekoizpenak aukera zabal duela erakusten du, eremu hauek zaindu eta kontserbatzearen beharra, alegia.
8. Udalerriko landa lurraren %56,9a egokia edo oso egokia da abeltzaintzarako. Orotara, 937 dira abeltzaintzarako egokiak edo oso egokiak diren hektareak, hau da, mila biztanleko 1868 hektarea. Lur hauek zentroan eta udalerraren hego mendebaldean kokatzen dira, batik bat. Honelako jarduerak bultzatzeko lur egokiak denetariko tamainak dituzte. Basolarregintza aintzat hartuz gero, gainera, are zabalagoa izan daiteke eremu hori eta etorkizuneko basogintza iraunkorrarentzat indargarri gerta liteke.
9. Errigoitik egungo herritar guztiak barazkiz hornitzeko nahikoak lirateke 4 hektarea. Hau da, barazkigintzarako egokiak diren lurren %3,8a horretara bideratuz Errigoitiko egoiliarren barazki beharra asetu daiteke. Frutagintzarako egokiak diren lurren %2a nahikoa litzake errigoitiarren fruta beharra asetzeko. Abeltzaintzarako, berriz, %1,3a
10. Egun barazkigintzara bideratutako lurrek soilik 90 bat herritarren urteko barazki beharra asetzeko ahalmena dute. Beraz, lurraren desaprobetxamendua handia da: barazkigintzarako egokiak edo oso egokiak diren lurrek urtean 13.776 pertsonen elikadura beharra asetzeko ahalmena dute. Hau da, herritar egoiliarren autohornikuntza bermatzeaz gain, Errigoitiko lurrek beste 13.274 pertsona elikatzeko potentzialtasuna izango lukete. Errigoitik %2.744 handitzen du bere auto hornikuntzarako gaitasuna.
11. Errigoitiko elikagaien eskaria asetzeko produkzio guztia bertan kokatuko balitz, baratzegintzan baldintza egokiko 34 bat lanpostu sortuko lirateke, frutagintzan 10 eta abeltzaintzan 1. Egokiak diren lur guztiak lehen sektorerara bideratuko balira, 311 lanpostu sortzeko aukera legoke. Baratzegintzan bakarrik 200 lanpostutik gora sortzea posible litzake.

Gauzak horrela, esan daiteke, hirigintza planeamenduaren erronketariko bat badela udalerriko lurra elikagaien ekoizpenerako izan daitezen behar diren, identifikazio katalogazio eta babes neurriak ezartzea. Baina xede hori hartzeak, era berean beste erronka batzuk dakartza, hala nola, aztertzea nola babestu funtzionaltasun handieneko partzelak, batez ere bizitokietatik hurbilen daudenak, bai eta jarduera desberdinetarako egokiak direnak, hala nola, malda apalak dituztelako, iturria eskura dutelako, irisgarriak direlako...

Edonola ere, esan beharrekoa da, gauzak dauden moduan egonda eta etorkizunari begira Errigoitik eskaini ditzakeen aukerak kontutan hartuz, beharrezko dela lurraldearen gaitasun natural zein agrologikoa eragotzi dezaketen prozesu oro berrikustea. Irizpide hauek planeamenduak bere eginez gero, etorkizunean bertan elikagaiak ekoitzi eta kontsumitzeko plan estrategiko baten diseinurako oinarriak jarrita leudeke.




Elikagaien eskaria

Atal honetan elikagai kontsumoari dagozkion dimentsio nagusiak ezagutuko dituzu udalerrri mailan: kontsumituriko elikagaien bolumena, gehien eta gutxien kontsumituriko elikagaiak, hauen zenbatekoa eta aurreikusi daitekeen biztanleria bolumena hemendik eta 2030 urtera.


4.1. HERRITAR EGOILIARREN ELIKAGAIEN KONTSUMO BEHARRA

BIZTANLERIAREN BILAKAERA (KOP.).
ERRIGOITI, 1986/2017.



Iturria: EUSTAT eta INE.

BIZTANLERIAREN ADIN EGITURA (%).
ERRIGOITI, 2017.




Iturria: EUSTAT eta INE.





BIZTANLERIAREN PROSP. (KOP.).
ERRIGOITI, 2018/2030.



Iturria: GAINDEGIA.

Egun 502 biztanle

ditu Errigoitik (2017). Udalerrriak hazkunde demografiko konstantea izan zuen 1994/2011 epealdian. Ordutik aurrera, biztanle kopurua urtez urte txikitzen joan da.

2030 urtea ortzimugan, biztanleriaren kopuruak behera egiten jarraituko du hazkunde begetatibo eta saldo migratorio negatiboaren ondorioz.

Errigoitiko indar endogenoei erreparatuz, hemendik eta 2030 urte bitartean biztanleria galera aurrera jarraituko du. Arrazoi nagusiak azken urteetako hazkunde begetatibo (jaiotza eta heriotzen arteko diferentzia) eta saldo migratorio negatiboak izango dira.

2011/2017 epealdian udalerriak ia 50 pertsona galdu ditu migrazio fenomenoaren ondorioz. Gainera, udalerria uzten dutenen perfila gazteena zein seme-alabadun familiena da.


Halaber, Errigoitik zahartze tasa oso altua du (%25,1), Bizkaiko tasa baino ia 3 puntu altuagoa, baina, 15-29 urteko gazteen belaunaldia oso apala da (%8,6). Ondorioz, etorkizun hurbilean udalerria ez da biztanleria biziberritzeko gai izango, heriotza kopuruak jaiotza kopuruak baino altuagoak izango baitira.



4.2. HERRITAR EGOILARREN ELIKAGAIEN KONTSUMO BOLUMENA

ELIKAGAIEN KONTSUMO OROKORRA (kg urtean/per capita).


EUSKAL A.E, 2017.




Iturria: Espainiako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa.

ELIKAGAIEN KONTSUMOA OROKORRA (kg/urtean).

ERRIGOITI, 2017.



Iturria: GAINDEGIA. Estimaturiko datuak.



Euskal A.E.ko herritar batek, batez bestez, urtean 109 kg fruta fresko, 74 kg esne eta esneki, 58 kg barazki fresko eta beste 48 kg haragi kontsumitzen ditu.

Ogiak eta pastak (41 kg), arrainak (28,5 kg), patatek (28,5 kg), zerealak, gailetak eta opildegia (14,8 kg), eraldatutako barazki eta frutak (14,1 kg), olioak (12,6 kg) edo plater prestatuak (11 kg) ere presentzia nabarmena dute herritarren elikadura ohituretan. Elikadura ohiturak eraldatzen ari dira nabarmen, baina produktu freskoen nagusitasuna agerikoa da herritarren elikaduran.

Euskal A.E.ko *per capita*-ko kontsumoa udalerrri mailara ekarrita, Errigoitin orotara urtean fruta freskoan 54.572 kg, esne eta esnekietan 37.138 kg, barazki freskoetan 29.001 kg eta 23.915 kg haragi kontsumitzen dira.


ELIKAGAIEN KONTSUMO BOLUMEN OROKORRA (kg). ERRIGOITI eta BERE TESTUINGURUA, 2017.

	Kontsumo per capita (kg/urtean)	Kontsumoa orotara (mila kg/urtean)		
		ERRIGOITI	Busturialdea	Bizkaia
OROTARA	464,1	233	21.396	533.080
Fruta freskoa	108,7	55	5.012	124.865
Esnea eta esnekiak	74,0	37	3.411	84.974
Barazki freskoak	57,8	29	2.663	66.355
Haragia	47,6	24	2.196	54.720
Ogia eta pasta	41,0	21	1.889	47.058
Arraina	28,9	14	1.330	33.149
Patata	28,5	14	1.314	32.747
Zerealak, gailetak, opildegia	14,8	7	680	16.953
Eraldatutako barazki eta frutak	14,1	7	650	16.195
Olioak	12,6	6	580	14.449
Plater prestatuak	11,0	6	506	12.600
Arrautzak	9,6	5	441	10.981
Txokolatea eta ordezkioak	4,3	2	199	4.951
Eltzekariak	3,4	2	158	3.940
Arroza	3,0	1	136	3.388
Fruitu lehorrak	2,7	1	126	3.136
Olibak	2,3	1	105	2.619

Oharrak: estimazioa. Per kapitako kontsumoak Euskal A.Eko 2016ko uztailetik 2017ko ekainera bitarteko epea aintzat hartzen du (datu gaurkotuen).

Iturria: Espainiako Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioa, EUSTAT eta INE. GAINDEGIA.


BARATZEGINTZAKO KONTSUMOA (kg/urtean). ERRIGOITI, 2017.



Frutagintzari dagokionez, nabarmena da kanpo produktuekiko menpekotasuna, izan ere hainbat fruta ez dira ohikoak euskal landa eremuan. Halere, badira euskal lurraldean ekoizten diren kontsumo handiko frutak, sagarrak, madariak edota kiwiak, besteak beste.

Laranjak, sagarrak, bananak, meloiak, mandarinak, sandiak, melokotoiak edota kiwien eskaria oso altua da egungo elikadura ohituretan.

ABELTZAINTZAKO KONTSUMOA (kg/urtean). ERRIGOITI, 2017.






Tomate fresko eta prozesatua, frutak kontserban, tipula, piper, IV gamako barazkiak, letxuga eta antzekoak, kalabazina edo azenarioen eskaria oso nabarmena da egungo elikadura ohituretan.

Baratzegintzari dagokionez, eta Euskal A.E.ko herritarren kontsumo ohiturei jarraituz, Errigoitin orotara 6.114 kg tomate fresko, 5.783 kg fruta kontserban, 3.735 kg tipula edota 2.907 kg piper kontsumitzen dira.

Tomate prozesatua (2.726 kg), IV gamako barazkiak (garbituta eta ontziratua kontsumorako prest), letxuga-eskarola-endibiak (2.214 kg), kalabazinak (1.993 kg) edota azenarioen (1.993 kg) eskaria handia da ere.

FRUTAGINTZAKO KONTSUMOA (kg/urtean). ERRIGOITI, 2017.



Oilaskoa da haragien artean jaun eta jabe. Urrun da txerri-haragia, eta are gehiago, beste haragi moten kontsumoa. Esnearen kontsumoan ohiturak aldatzen ari dira, halere, Errigoitin 35.582 bat litro kontsumitzen dira urtean.


Abeltzaintzari dagokionez, azpimarratzekoa da esnea, esnekien eta arrautzen kontsumo bolumena, elikadura ohituretan oso arruntak diren produktuak direlako.

Euskal A.E.ko herritarren biztanleko kontsumoa Errigoitin aplikatuz, urtean 6.516 kg oilasko, 4.377 kg txerri-haragi, 2.395 kg labeldun haragi eta 2.390 kg txahal urrixa kontsumitzen dira. Indioilarrak (1.089 kg) eta arkumeak (768 kg) presentzia apalagoa dute, momentuz, herritarren elikadura ohituretan.

4.3. HERRITAR EGOILARREN ELIKAGAIEN KONTSUMO GASTUA

ELIKAGAIEN KONTSUMO GASTU OROKORRA (€ urtean/per capita).


EUSKAL A.E, 2017.



Iturria: Espainiako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa.

ELIKAGAIEN KONTSUMO GASTU OROKORRA (mila €).

ERRIGOITI, 2017.



Iturria: GAINDEGIA. Estimaturiko datuak.



Euskal A.E.ko herritar batek, batez bestez, urtean 350€ gastatzen ditu haragia erosten, eta beste 249€, arraina erosten. Kantitatean kontsumo handieneko produktuak ez badira ere, prezioagatik elikadura gastuan nabarmentzen diren produktuak dira.

Haragia eta arraina alde batera, urtean 164€ gastatzen ditu Euskal A.E.ko herritar batek fruta freskoan, 107€ barazki freskoetan edota 60€ esnea eta esnekietan. Eraldatutako barazki eta frutan beste 36€, patatak erosten 25€, arrautzetan 22€, edota eltzekarietan, 7€.

Per capita-ko kontsumo patroir horiek Errigoitiko errealitatera ekarrita, urtean haragian 176.000€, fruta freskoan 82.000€, barazki freskoetan 54.000€ eta esnea eta esnekietan 30.000€ gastatzen dituzte errigoitiarrek. Lau produktu mota hauetan bakarrik, urtean 342.000€.



Errigoitiko herritarrek urtean haragia erosten 176.000€, fruta freskoan 82.000€, barazki freskoetan 54.000€ edota esnea eta esnekietan 30.000€ gastatzen dute, besteak beste.


ELIKAGAIEN GASTU BOLUMEN OROKORRA (€). ERRIGOITI eta BERE TESTUINGURUA, 2017.

	Gastua per capita (€/urtean)	Gastua orotara (mila €/urtean)		
		ERRIGOITI	Busturialdea	Bizkaia
OROTARA	1.343,3	674	61.926	1.542.891
Fruta freskoa	350,4	176	16.151	402.415
Esnea eta esnekia	248,8	125	11.470	285.785
Haragia	164,0	82	7.562	188.418
Barazki freskoak	107,3	54	4.946	123.223
Ogia eta pasta	103,2	52	4.756	118.502
Arraina	65,5	33	3.018	75.188
Patata	59,6	30	2.749	68.491
Zerealak, gailetak, opildegia	49,5	25	2.283	56.879
Eraldatutako barazki eta frutak	41,3	21	1.902	47.392
Olio	36,0	18	1.658	41.304
Plater prestatuak	31,7	16	1.463	36.445
Arrautzak	25,1	13	1.157	28.830
Txokolatea eta ordezkoak	21,8	11	1.004	25.017
Eltzekaria	20,8	10	959	23.903
Arroza	7,2	4	330	8.213
Fruitu lehorrak	6,2	3	287	7.144
Olibak	5,0	3	231	5.743

Oharra: estimazioa. Per capitako gastuak Euskal A.E.ko 2016ko uztailetik 2017ko ekainera bitarteko epea aintzat hartzen du (datu gaurkotuena).

Iturria: Espainiako Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioa, EUSTAT eta INE. GAINDEGIA.


BARATZEGINTZAKO KONTSUMO GASTUA (€/urtean). ERRIGOITI, 2017.



Iturria: GAINDEGIA. Estimaturiko datuak.

Kanpo produkzioko zenbait frutek bereganatzen dute elikadura gastuaren proportzio garrantzitsu bat. Halere, sagarrek, kiwiek edo madariek gastu zati handi bat hartzen dute.

ABELTZAINZAKO KONTSUMO GASTUA (€/urtean). ERRIGOITI, 2017.



Iturria: GAINDEGIA. Estimaturiko datuak.




Tomateek, IV gamako barazkiek, letxuga eta antzekoek, piperrek, tipulek, tomate prozesatua edota lekek barazkigintzako elikadura gastuaren bolumen garrantzitsua barnebiltzen dute.

Baratzegintzari dagokionez, Euskal A.E.ko kontsumo patroiei jarraituz, Errigoitiko herritarrek tomate freskoan 10.723€, IV gamako barazkietan 6.059€, letxuga, eskarola edota endibietan 5.587€ eta beste horrenbeste piperretan gastatzen dute urtean orotara elikaduran.

Tipula, tomate prozesatua, lekak, zainzuri prozesatuak, txanpiñoi eta beste perretxikoak, frutak kontserban edota kalabazinak presentzia nabarmena dute ere herritarren elikadura gastuan.

FRUTAGINTZAKO KONTSUMO GASTUA (€/urtean). ERRIGOITI, 2017.



Iturria: GAINDEGIA. Estimaturiko datuak.

Oilasko haragian, labeldun haragian, txerri haragian eta txahal urrixan 100.000€-tik gora gastatzen dute errigoitiarrek urtean. Gastua ere esanguratsua da arkumea eta indioilar haragian, hala nola esnean eta arrautzetan.

Abeltzaintzaren esparruan, errigoitiarrek Euskal A.E.ko elikadura patroien arabera, oilasko haragia erosten urtean 28.569€ gastatzen dute. Horretaz gain, labeldun haragian beste 27.389€, txerri haragian 26.837€ eta txahal urrixan 24.467€ gastatzen dute.

Bestalde, esnea eskuratzeko gastuaren zenbatekoa 25.953€koa da, esnekietan 1.516€koa eta arrautzetan 10.934€koa, Euskal A.E.ko elikadura patroien arabera udalerrri mailan estimatutako bolumenaren arabera.

5.






Lehen sektorearen diagnostikoa

Atal honetan udalerriko lehen sektoreari dagozkion dimentsio nagusiak ezagutuko dituzu: sektorearen negozio zifra, ehun ekonomikoa, sortzen duen enplegu bolumena, animalia azienda... ahal izan dugun guztietan informazioa dimentsio konparagarrietan eskaini dugu esandakoari neurria hartu ahal izateko.

5.1. LEHEN SEKTOREAREN NEGOZIO-ZIFRA

NEGOZIO-ZIFRA LEHEN SEKTOREAN (milioi €). ERRIGOITI



Iturria: EUSTAT eta GAINDEGIA. Estimaturiko datuak.

0,76 milioi €


inguruko neozio-zifra
sortzen du urtean
Errigoitiko lehen
sektoreak.

Udalerriko balio erantsi osoaren %12,6a lehen sektoreak sortzen du (EUSTAT, 2015). Kopuru esanguratsua da bere gertuko inguruarekin alderatuta. Izan ere, nabarmen apalagoa da Busturialdean (%6,5) eta Bizkaian (%0,6). Lehen sektoreak munduko balio erantsi osoaren %3,9a sortzen du, Nazio Batuen Erakundeko azken datuen arabera (2014).

2008/2012 epealdian Errigoitin lehen sektoreak sortzen zuen neozio zifra nabarmen handitu zen, ia 0,8 milioi €ra iritsi arte. Azken urteetan maila hori konstante mantendu da.



LEHEN SEKTOREAREN BALIO ERANTSIA (BPGaren %). ERRIGOITI eta BERE TESTUINGURUA.




Iturria: EUSTAT eta ILO.



5.2. LEHEN SEKTOREKO ENPLEGU SORRERA

NEKAZARITZA, ABELTZAINZA, EHIZA ETA BASOGINTZAKO LANDUNAK. ERRIGOITI.



NEKAZARITZA, ABELTZAINZA, EHIZA ETA BASOGINTZAKO LANDUNAK (%). ERRIGOITI eta BERE TESTUINGURUA.

	1996	2001	2006	2011	2016
ERRIGOITI	19,5	4,9	4,5	2,8	3,0
Busturialdea	3,5	2,1	1,0	1,1	1,2
Bizkaia	1,0	0,9	0,6	0,7	0,7
Mundua	40,9	38,5	34,1	29,9	-

Iturriak: EUSTAT eta International Labour Organization (ILO).

2010az geroztik 4 enplegu galdu dira Errigoitiko lehen sektorean, eta 2014 urtetik, ez dira 10 kontratazio baino gehiago egin urtean.

Errigoitin 6 enplegu bakarrik daude nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta basogintza jardueretan. Hau da, enplegatuen %3,0a jarduera hauei lotuta dago (2016). Busturialdean edo Bizkaian proportzio hori askoz ere txikiagoa da. Munduan, aldiz, enpleguaren %30a lehen sektoreari lotuta dago, arrantza barne.

Errigoitin ez dago nekazal erregimenean aritzen den landunik, sektorean lan egiten duten guztiek autonomo gisa dihardute. 2014 urteaz geroztik, udalerriko lehen sektorearen kontratazio bolumenak ageriko goraldia izan du. Nolanahi ere, aldi baterakotasun handiko kontratazioa nagusitzen da sektorean.

NEKAZAL ERREGIMENEN KONGILEAK, KONTRATAZIOA ETA LANGABEZIA ERREGISTRATUA. ERRIGOITI eta BERE TESTUINGURUA.


	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Nekazal erregimenera afiliatutako langileak										
ERRIGOITI	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Busturialdea	35	44	50	64	59	54	59	61	61	64
Bizkaia	1.011	1.092	1.132	1.104	954	814	794	848	867	920
Kontratazioa lehen sektorean										
ERRIGOITI	2	1	0	0	0	1	4	1	10	5
Busturialdea	933	652	632	526	525	610	634	903	797	551
Bizkaia	2.681	2.108	2.064	1.991	1.921	2.049	2.498	2.948	2.657	2.445
Langabezia erregistratua lehen sektorean										
ERRIGOITI	0	0	0	0	0	1	0	1	0	0
Busturialdea	45	36	45	65	76	76	78	75	81	71
Bizkaia	484	611	852	1.352	1.445	1.468	1.547	1.510	1.489	1.381

Iturria: Espainiako Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministerioa.

5.3. LEHEN SEKTOREKO EHUN EKONOMIKOA

NEKAZARITZA, ABELTZAINZA eta BASOZAINZAKO ESTABLEZIMENDUAK (%)


ERRIGOITI.



■ Basogintza eta baso ustiaketa

■ Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta horiekin zerikusia duten zerbitzuak

BERE TESTUINGURUA, 2017



Iturria: EUSTAT.

Errigoitin lehen sektoreko 4 establezimendu bakarrik daude eta udalerriko ehun ekonomikoaren %11,1a osatzen dute. Proportzio hori dezente apalagoa da Busturialdean zein Bizkaian. Establezimenduen jardura ondorengo da: abeltzaintzako ekoizpenak (2 establezimendu), laborantza ez iraunkorra (establezimendu bat) eta nekazal eta abelazkuntza konbinaketa (establezimendu bat). 2012tik hona lehen sektoreari lotutako establezimenduen kopuruak behera egin badu ere, pisua irabazi du udalerriko ehun ekonomikoan.

NEKAZARITZA, ABELTZAINZA eta BASOZAINZAKO ESTABLEZIMENDUAK.

ERRIGOITI.


	2012	2013	2014	2015	2016	2017
NEKAZARITZA, ABELTZAINZA eta BASOZAINZA	9	7	6	5	3	4
Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta horiekin zerikusia duten zerbitzuak						
OROTARA	8	7	6	5	3	4
<i>Laborantza ez iraunkorrak</i>	3	2	1	1	1	1
<i>Laborantza iraunkorrak</i>	2	0	0	0	0	0
<i>Landareen hedapena</i>	0	0	0	0	0	0
<i>Abeltzaintzako ekoizpena</i>	2	3	3	4	2	2
<i>Nekazal ustiaketa abelazkuntzako ustiaketarekin konbinatuta</i>	0	1	1	0	0	1
<i>Nekazaritzari eta abeltzaintzari laguntzeko eta uzta jaso osteko prestakuntzarako jarduerak</i>	1	1	1	0	0	0
<i>Ehiza, animaliak harrapatzea eta horiekin zerikusia duten zerbitzuak</i>	0	0	0	0	0	0
Basogintza eta baso ustiaketa						
OROTARA	1	0	0	0	0	0
<i>Basogintza eta basoko beste jardura batzuk</i>	1	0	0	0	0	0
<i>Eguraren ustiaketa</i>	0	0	0	0	0	0
<i>Basoko produktuen bilketa, egurra salbu</i>	0	0	0	0	0	0
<i>Basogintzari laguntzeko zerbitzuak</i>	0	0	0	0	0	0

Iturria: EUSTAT.

NEKAZARITZA, ABELTZAINZA eta BASOZAINZAKO ESTABLEZIMENDUAK.
ERRIGOITI.

> LEGE-NORTASUNAREN ARABERA


Pertsona fisikoak
eta elkarte ez
mugatuak
osatzen dute
lehen sektoreko
ehuna.



Iturria: EUSTAT.

> ENPLEGU KOPURUAREN ARABERA

Lau
establezimendutik
hiru bi pertsona
edo gutxiagoz
osatuta dago.



Iturria: EUSTAT.


ZENTSATUTAKO USTIATEGIAK, USTIATZE ETA ERABILERA MOTAREN ARABERA.
ERRIGOITI.

	Ustiategi kopurua			Azalera (ha)		
	1989	1999	2009	1989	1999	2009
OROTARA	120	132	74	1.132	1.209	718
NAEdunak(*)	120	127	74	530	639	377
Lurdunak	120	127	74	1.132	1.209	718
<i>Aziendadunak</i>	100	82	46	872	874	462
<i>Azienda gabeak</i>	20	45	28	261	335	255
Lurgabeak	0	5	0	0	0	0
Erabilera-motaren arabera						
Lur guztiak	120	127	74	1.132	1.209	718
<i>Lur landuak</i>	112	109	69	45	29	109
<i>Larre iraunkorretarako lurak</i>	119	126	73	485	610	269
Bestelako lurak	119	113	67	603	570	340

(*) Nekazaritzarako Azalera Erabilgarria.

Iturria: EUSTAT eta INE. Nekazal Zentsuak.

ZENTSATUTAKO ANIMALI-AZIENDAREN BILAKAERA (kop.). ERRIGOITI.



1989/2009 epealdian animalia azienden
%63,7a galdu egin zen.





ANIMALI-AZIENDA, MOTAREN ARABERA. ERRIGOITI eta BERE TESTUINGURUA, 2009.

	ERRIGOITI	Busturialdea	Bizkaia
Abeltzaintza-unitateak			
Behi-aziendak	15	314	49.288
Ardi-aziendak	15	229	64.990
Ahuntz-aziendak	12	120	12.238
Txerri-azienda	2	67	2.487
Zaldi-azienda	13	231	7.453
Hegaztiak, ostrukak izan ezik (mila buru)	31	360	776
Ostrukak	0	1	18
Untxi amak	13	141	14.574
Erlauntzak	1	14	1.339
Abeltzaintza-unitateak/mila biztanleko			
Behi-aziendak	2,9	0,7	42,7
Ardi-aziendak	2,9	0,5	56,4
Ahuntz-aziendak	2,3	0,3	10,6
Txerri-azienda	0,4	0,1	2,2
Zaldi-azienda	2,5	0,5	6,5
Hegaztiak, ostrukak izan ezik (mila buru)	6,0	0,8	0,7
Ostrukak	0,0	0,0	0,0
Untxi amak	2,5	0,3	12,6
Erlauntzak	0,2	0,0	1,2

Iturria: EUSTAT eta INE. Nekazal Zentsuak.

Errigoiti bere testuinguruarekin alderatuta, 1.000 biztanleko Busturialdeak baino animalia-azienda gehiago ditu, baina ez da Bizkaiko ratioetara hurbiltzen.






A background image showing several dandelion seeds with their feathery parachutes floating in the air against a soft, out-of-focus background. The seeds are at various heights and angles, creating a sense of movement and lightness.

Lurraren diagnostikoa

Atal honetan egun udalerriko landa lurrari ematen zaion erabileraren dimentsio nagusiak ezagutuko dituzu. Horrela, jakingo duzu zenbateko lur azalera erabiltzen den, zer ekoizten den, non ekoizten den. Atal hau ezinbestean ondorengoarekin lotuta dator, zeinak azaltzen duen gaur egun baliatzen dena baino arras handiagoa dela autohornikuntza.

6.1. LURRAREN EGITURA OROKORRA ETA ORGANIKOA

HIRI LURZORUAREN BILAKAERA (%). ERRIGOITI eta BERE TESTUINGURUA.




Iturria: EUSTAT eta EUSKO JAURLARITZA.

Oharra: Hiri-lurzorutzat egoitzatarako lur eta lur industrialetan finkaturiko eta finkatu gabeko lurak soilik kontsideratzen dira. Kanpo geratzen dira, beraz, lurzoru urbanizaezina eta lurzoru urbanizagarria (ikus UDALPLAN).

Errigoitiko azaleraren %0,7a hiri lurzorua da, eta beste %12,0a, lurzoru urbanizagarria, Udalplaneko datuen arabera (2017). Busturialdearekin, eta bereziki Bilborekin alderatuta, udalerriko lurzoruaren gaineko hiri aztarna murrizta da, eta zentzu horretan, badu bere inguruak ez duen ondasun bat.

Errigoitiko azaleraren %0,7a hiri lurzorua da. Bizkaian proportzio hori %5,0ekoa da, eta Busturialdean, berriz, %2,0.

URBANIZATUTAKO LURRA, FUNTZIOAREN ARABERA. ERRIGOITI, 2017. BANAKETA (%)



Industrial
Sistema orokorra
Egoitzarako

Errigoitin urbanizaturiko azaleraren %41,4a egoitzarako lurzorua da, %38,5 sistema orokorretara bideratuta dago eta %20,4a industriarako lurzorua da.

Iturria: EUSTAT eta EUSKO JAURLARITZA.



LURRAREN EGITURA OROKORRA ETA ORGANIKOA ETA KALIFIKAZIOA. ERRIGOITI eta BERE TESTUINGURUA, 2017.

	ERRIGOITI	Busturialdea	Bizkaia
ha			
Egoitzarako lurzorua	14,2	894	8.139,8
Jarduera ekonomikoetarako lurzorua	7,1	210	4.993
Sistema orokorretako lurzorua (2)(3)	13,3	645	10.574
Lurzoru urbanizaezina (1)	1616,4	26.108	197.769
OROTARA AZALERA	1.651	27.857	221.484
%			
Egoitzarako lurzorua	1,3	3,2	4,8
Jarduera ekonomikoetarako lurzorua	0,4	0,8	2,3
Sistema orokorretako lurzorua (1)(2)	0,8	2,3	4,8
Lurzoru urbanizaezina (1)	97,5	93,7	88,2
OROTARA AZALERA	100	100	100

(1) Landa-guneko nukleo ez urbanizagarriak barne hartu dira.

(2) 2012an zenbatu ziren lehenengo aldiz "ibai bideak" sistema orokorreko lurzoru gisa.


(3) 2014an islatu zen lehenengo aldiz "AHT" sistema orokorreko lurzoru gisa.

Iturria: EUSKO JAURLARITZA.

Errigoitik eta
Busturialdeak lurzoru
urbanizaezin
portzentaje handia
dute.


Errigoitik 1.651 hektareako azalera dauka. Horietatik, 1.616 hektarea urbanizaezinak dira. Beste era batera esanda, udalerriko azaleraren %97,5a urbanizaezina da. Proportzio hori Busturialdean %93,7koa da, eta Bizkaian, %88,2koa.

KOKAPENA



URBANIZATUTAKO LURRAREN BILAKAERA (ha). ERRIGOITI, 1997-2017.


FUNTZIOAREN ARABERA



Iturria: EUSTAT eta EUSKO JAURLARITZA.

Azken bi hamarkadetako urbanizazio prozesuan egoitzatarako lurzorura bideratu da azalera gehien, 7,9 hektarea. Industriara bideratzen diren 7,1 hektareatik ia %100a azken hogeitertan eraiki dira. Kontrakoz, ekipamenduetara bideratutako lurra hektarea bat murriztu da.





Oharrak:

Alderaketa honetan ez dira kontutan hartu garraio eta komunikabideen azpiegiturak, erabilitako 1997ko Udalplan kalifikazioan ez baita errepide sarearen inguruko informaziorik agertzen.


Bestalde, egoitzatarako lur ez urbanizagarriak aintzat hartu dira Udalmapen izendapenak hala agertzen baita.



6.2. LURRAREN EGITURA ETA LANDA LURRAREN ERABILERA

LURRAREN SAILKAPENA ERABILERAREN ARABERA (%). ERRIGOITI, 2017.

BANAKETA (%)



Errigoitiko lurzoruen


%66,5a basoa

da, eta beste

%24,8a, larrea.


Balio natural handiko azalera dauka udalerriak.

LURRAREN ERABILERA BIZTANLEKO (ha/1.000 bizt.).
ERRIGOITI, 2017.






KOKAPENA



Mila biztanleko laborantzara dedikaturiko 41,3 ha eta frutagintzara dedikaturiko 47,1 ha daude. Larre ratioa, oster, 816,6 ha/1.000bzt. da.

Basoen nagusitasuna alde batera, larreek udalerriko lurzoruauren laurden bat (%24,8) osatzen dute. Era berean, laborantzara bideraturiko lurrek lurzoruauren %1,3a hartzen dute, eta azaleraren beste %1,4a, frutagintzara bideratuko lurrek metatzen dute.


Laburrean, udalerrian mila biztanleko 816,6 ha larre daude, 41,3 ha/1.000bzt. dira laborantzara bideraturikoak, eta frutagintzara bideratutakoak, berriz, 47,1 ha/1.000 biztanleko.



6.3. BASOAREN EGITURA

BASOEN SAILKAPENA MOTAREN ARABERA (%). ERRIGOITI, 2017.

BANAKETA (%)



1.184,2 hektarea


baso daude, horietatik, %88a landatutakoak dira. Pinu Radiata nagusi da (762,2 ha).

Baso azaleraren %12a baso naturala da (146,9 ha).

*Jatorrian, Euskal Herriko zuhaitz gehienak landatuak izan dira. Ez dago gizakiak esku hartu ez duen baso naturalik. Hala ere, bereizi egiten da landaketa eta baso artean. Lehenengoa, landaketa marko konkretu baten baitan egoten da, adin eta tamaina bereko espezie bakarrekin. Bigarrenak, itxura naturalagoa du, denboraren joanaz eremu heterogeneoa bihurtzen da: bertako zuhaitz, sasi eta, oro har, masaren bergenerazio naturala ematen da.



BASO AZALERA BIZTANLEKO (ha/1.000 bizt.).

ERRIGOITI, 2017.






KOKAPENA



6.4. LANDA LURRAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

6.4.1. ERREPIDEEN GERTUTASUNA


PARTZELEN SAILKAPENA ERREPIDEAREKIKO DISTANTZIAREN ARABERA (%).
ERRIGOITI, 2017.



Landa lurreko partzelen %63,4ak gehienez 100 metroko distantziara errepide bat du. Beste %31,5a errepide batetik 100 eta 300 metro arteko distantziara kokatzen da. Irigarritasun egokia hedatua dago, beraz.

6.4.2. ITURBURUEN GERTUTASUNA

PARTZELEN SAILKAPENA ITURBURUEKIKO DISTANTZIAREN ARABERA (%).
ERRIGOITI, 2017.




Partzelen %7,2ak gehienez 100 metroko distantziara iturburu bat dute, eta beste %46,1ak 100 eta 300 metro arteko distantzian. Iturburu batetik 600 metrotara edo urrunago kokatzen diren partzelek biltzen dituzten lurrak %12,9a bakarrik dira.



Errepideak


- Autopistak, autobiak eta galtzada bikoitzeko errepideak
- Beste errepide batzuk
- Bidea
- Errepide nagusiak



Unibertsoa: 2.247 partzela.

Iturburuak


- Iturburuaren kokapena
- 100m-ko bufferra
- 300m-ko bufferra
- 600m-ko bufferra



Unibertsoa: 2.247 partzela.

6.4.3. LURRAREN ORIENTAZIOA


LANDA LURRAREN SAILKAPENA ORIENTAZIOAREN ARABERA (%).
ERRIGOITI, 2017.



Errigoitiko landa lurren %23,4ak hegoalderantz orientatuta daude, %22,9a hego ekialderantz eta %10,7a hego mendebalderantz. Gutxi dira iparraldera orientaturiko lurrak, hortaz, ereintzako landa lurren orientazioa aproposa da

6.4.4. LURRAREN MALDA

LANDA LURRAREN SAILKAPENA MALDAREN ARABERA (%).
ERRIGOITI, 2017.




Landa lurraren %5,4ak bakarrik du %8tik beherako malda. Beste %11,7ak %8-12 arteko malda dauka.

Landa lurren %81,5ak %20ko malda baino handiagoa du.





Lurraren orientazioa



Unibertsoa: 1.570,3 ha.

Malda (%)



Unibertsoa: 1.570,3 ha.

7






Elikagaien ekoizpenerako lurraren diagnostikoa

Atal honetan udalerriko landa lurak duen gaitasun agrologikoa ezagutuko duzu. Xede horrekin landa lur osoa katalogatu eta partzela bakoitzari jarduera desberdinetarako duen egokitasuna aztertu dugu. Horrela, baratzegintzarako, frutagintzarako eta abeltzaintzarako egokienak diren lurak katalogatu ditugu. Era berean, baso eta abeltzaintza uztartzen dituen eredu misto baterako (basolarregintza) lur egokiak identifikatu ditugu. Lurraren orientazioa, malda, ur iturburuen gertutasuna nahiz errepidetara distantzia aintzat hartu dira.

7.1. BARATZEGINTZARAKO LURREN EGOKITASUNA

BARATZEGINTZARAKO LURREN SAILKAPENA EGOKITASUNAREN ARABERA (%).

ERRIGOITI, 2017.




Errigoitiko landa lurraren %6,0a bakarrik kategorizatu da baratze gintzarako egokia edo oso egokia bezala. Lurzorua ren beste %25,9a ez da bereziki egokia ez desegokia. Beraz, 98,2 dira baratze gintzarako egokiak edo oso egokiak diren hektareak, hau da, mila biztanleko 195,6 hektarea.


Baratze gintzarako egokiak edo oso egokiak diren 98,2 hektarea daude udalerrian.

Lur horiek udalerriko biztanleria nukleo nagusienaren iparraldean kokatzen dira, nagusiki. Halaber, badira udalerri osoan zehar sakabanatuta dauden baratze gintzarako partzela proposak.


BARATZEGINTZARAKO LURRAREN EGOKITASUNA BIZTANLEKO (ha/1.000 bizt.).

ERRIGOITI, 2017.






BARATZEGINTZARAKO LURREN EGOKITASUNA TAMAINAREN ARABERA (%).
ERRIGOITI, 2017.



Unibertsoa: 1.570,3 ha.

7.2. FRUTAGINTZARAKO LURREN EGOKITASUNA

FRUTAGINTZARAKO LURREN SAILKAPENA EGOKITASUNAREN ARABERA (%).
ERRIGOITI, 2017.





Errigoitiko landa lurraren %15,0a frutagintzarako egokia edo oso egokia bezala kategorizatu da. Lurzorua beste %43,4,9a ez da bereziki egokia ez desegokia. Beraz, 247 dira baratzegintzarako egokiak edo oso egokiak diren hektareak, hau da, mila biztanleko 492,2 hektarea.

Frutagintzarako egokiak edo oso egokiak diren 247 hektarea daude.


Baratzegintzarako lurrekin gertatu bezala, frutagintzarako partzela egokienak udalerriaren iparraldean kokatzen dira. Dena den, badira beste hainbat partzela apropos udalerri osoan zehar sakabanatuta.

FRUTAGINTZARAKO LURRAREN EGOKITASUNA BIZTANLEKO (ha/1.000 bizt.).
ERRIGOITI, 2017.






FRUTAGINTZARAKO LURREN EGOKITASUNA TAMAINAREN ARABERA (%).
ERRIGOITI, 2017.



Unibertsoa: 1.570.3 ha.

7.3. ABELTZAINZARAKO LURREN EGOKITASUNA

ABELTZAINZARAKO LURREN SAILKAPENA EGOKITASUNAREN ARABERA (%).
ERRIGOITI, 2017.





Udalerriko landa lurraren %56,9a egokia edo oso egokia da abeltzaintzarako. Lurzoruaen beste %37,4a ez da bereziki egokia ez desegokia. Orotara, 937 dira abeltzaintzarako egokiak edo oso egokiak diren hektareak, hau da, mila biztanleko 1868 hektarea.

Abeltzaintzarako egokiak edo egokiak diren 937 hektarea daude.


Irudian ageri bezala, abeltzaintzarako egokia den lurzorua udalerrian barrena hedatzen da, eta horiek, nagusiki 20ha-tik gorako partzelak dira.

ABELTZAINZARAKO LURRAREN EGOKITASUNA BIZTANLEKO (ha/1.000 bizt.).
ERRIGOITI, 2017.






ABELTZAINZARAKO LURREN EGOKITASUNA TAMAINAREN ARABERA (%).
ERRIGOITI, 2017.



Unibertsoa: 1.570,3 ha.

7.4. BASOLARREGINTZARAKO LURREN EGOKITASUNA

BASOEN EGITURA MOTAREN ARABERA (%).
ERRIGOITI, 2016



526,3 hektarea

halako eredu misto batera
bideratzeko egokiak dira.

Etorkizuneko landaketa berriak basolarregintza eredu sustatzeko eremu egokiak dira. Ildo horretan, baso landaketarako eremuaren %51,1a egokia edo oso egokia da abeltzaintza jardueretarako ere.





Unibertsoa: 1.037,2 ha.








Hornikuntzarako gaitasuna eta lurraren potentzialitatea

Esandako guztiak, ordea, zer dakar HAPOan edo antzerako eragiketetan aintzat hartua izan dadin? Atal honetan modu labur eta argian txostenak utzitako ondorio nagusiak laburbiltzen ahalegindu gara. Edonola ere, zu zeu ere libre zara, osatu beharrekoak osatzeko. Zure esku dago hitza.

8.1. HERRITARREN ELIKADURARAKO LURRAREN ERABILERA ETA BALIZKO AHALMENA

LUR ERABILERA ETA ERABILI GABEKO LUR EGOKIA (%).
ERRIGOITI, 2017.



Baratzegintzarako egokia den luraren %99,2a ez da horretara bideratzen. Frutagintzaren kasuan, kopuru hori %98,2koa da, eta abeltzaintzan, lur egokiaren %65,5a ez da horretara bideratzen.

424,3 m²/biztanleko
lur behar dira urte osoko elikadura asetzeko.

ELIKADURARAKO LUR BEHARRA BIZTANLEKO (m²). BIZKAIA



Oharrak:

Eredu ekologiko edo jasangarri batean, Bizkaiko klimaren menpeko luraren errendimendua eta karga estimatu da.

Ez dira aintzat hartu honako eskariak asetzeko lur beharra: zerealak, eltzekari lehorrak, Bizkaian kontsumitu baina ekoiztu ezinezko frutak, esnekiak, urdaiazpikoa eta txerrikiak, hala nola animaliak elikatzeko pentsu eta bestelakoen lur beharra.



LUR ERABILERA ETA LUR EGOKIAREN APROBETXAMENDUA (Ha). ERRIGOITI, 2017.

	Baratzegintza	Frutagintza	Abeltzaintza	OROTARA (*)
Egun erabilitako lurrak	3	24	410	436
LUR EGOKIA				
Erabilitakoa	1	4	341	346
Erabili gabekoa	103	221	646	644
OROTARA	104	225	987	990

(*) Jarduera anitzetarako egokiak diren lurren kasuan, lehenetsi da baratzegintza eta frutagintza, hurrenez hurren.

Iturria: EHNE eta GAINDEGIA.


Autohornikuntza bermatzeaz gain, lurrek

beste 13.800 biztanle


elikatzeko gaitasuna dute.

Lur egokiaren aprobetxamendua mugaraino eramanda, Errigoitin sortutako barazkietatik 13.800 biztanle elikatu litezke urte osoan. Frutagintzan 14.650 biztanleen beharrak asetu litezke (**), eta abeltzaintzan, 28.850 biztanleen elikagai eskaria .

AUTOHORNIKUNTZA GAITASUNA. ERRIGOITI.



HERRITARRAK ELIKATZEKO LURRAREN GAITASUNA (bizt. kop.). ERRIGOITI, 2017.




(*) Jarduera anitzetarako egokiak diren lurren kasuan, lehenetsi da baratzegintza eta frutagintza, hurrenez hurren.

(**) Soilik Bizkaiko kliman ekoizgarriak izan daitezkeen motak aintzat hartu dira (kontsumituriko fruta bolumen osoaren %48,1a).

8.2. ELIKAGAIEN AUTOHORNIKUNTZA BEHARRA ETA AUKERA

BARAZKIGINTZAN AUTOHORNIKUNTZARAKO LUR BEHARRA (ha).
ERRIGOITI.



Oharrak:


Barazkien ziklo estazionalak eskaintzen duen kontsumoa aukera aintzat hartu da.

Eredu ekologiko batean, Bizkaiko klimaren menpeko luraren errendimendua eta errotazioa zehazteko 30 bat baserritarren iritzia aintzat hartu da.

Eltzekari lehorrak ez daude barnebilduta.



FRUTAGINTZAN AUTOHORNIKUNTZARAKO LUR BEHARRA (ha). ERRIGOITI.



Oharrak:

Eredu ekologiko edo jasangarri batean, Bizkaiko klimaren menpeko luraren errendimendua estimatu da.

Fruta eskaria zehazteko egun kontsumitzen den fruta bolumena aintzat hartu da. Soilik Bizkaiko kliman ekoizgarriak izan daitezkeen motak aintzat hartu dira (fruta bolumen osoaren %48,1a).



Barazkigintzan
3,8 ha,
frutagintzan
4,3 ha
eta abeltzaintzan
13,3 ha

behar dira udalerriko
autohornikuntza
gauzatzeko.


Udalerrian bizi diren herritarren elikagai kontsumoa asetzeko, Errigoitin beharrezkoak dira 21,3 hektarea horretara bideratzea.

Barazkigintzara, orotara, 3,8 hektarea bideratu behar dira herritar egoiliarren barazki eskaria asetzeko. Horien artean, nabarmentzekoa da patata (0,95 ha) eta babarrunak (0,82 ha) hartzen duten espazioa.

Fruten autohornikuntza asetzeko beharrezkoak dira 4,3 hektarea. Eremu horren zati garrantzitsu bat sagarretara bideratu beharra dago (0,89 ha). Frutagintzara bideratutako lurren erabilera abeltzaintzako zenbait jarduerekin uztartu daiteke, luraren aprobetxamendua handituz.

Abeltzaintzak 13,3 ha beharko lituzke errigoitiarren eskaria asetzeko. Autohornikuntzarako urtean, behintzat, 4.100 oilasko buru, 36 txerri buru, 13 abelgorri, 74.700 arrautza eta 35.600 litro behi-esne beharrezkoak dira.

ABELTZAINZAN AUTOHORNIKUNTZARAKO LUR BEHARRA (ha). ERRIGOITI.



Oharrak:

Eredu ekologiko edo jasangarri batean, lurraren errendimendua araudiaren arabera estimatu da.

Ez da animaliak elikatzeko pentsu eta bestelakoen produkzioak behar duen lur beharra aintzat hartu.

Haragi eskaria zehazteko egun kontsumitzen den haragi bolumena aintzat hartu da. Arrautzen produkzioarako lur beharra erredu ekologiko batean kalkulatu da.

Txerriaren haragi eskarian ez da urdaiazpikoa eta bestelako txerrien eskaria aintzat hartu.

Esne eskarian ez da esnekien eskaria aintzat hartu.

ABELTZAINZAN AUTOHORNIKUNTZARAKO BEHARRA (ha). ERRIGOITI.

Urteko produkzioa:

Arrautzak	
Elikatzeko buru kopurua (urte osoan)	266
Arrautza bolumena (kop./urtean)	74.678
Teilatupeko gutxienezko eremua (ha)	0,00
Artzaintzarako gutxienezko eremu irekia (ha)	0,11
Iraitzia ipintzeko lur gehigarria (ha)	1,05
OROTARA LUR BEHARRA (ha)	1,16
Okelarako oilaskoak	
Elikatzeko buru kopurua (urte osoan)	1.718
Oilasko buruak (kop./urtean)	4.072
Oilasko haragi produkzioa (kg./urtean)	6.516
OROTARA LUR BEHARRA (ha)	2,96
Okelarako txerriak	
Elikatzeko buru kopurua (urte osoan)	21
Txerri buruak (kop./urtean)	36
Txerri haragi produkzioa (kg./urtean)	4.377
OROTARA LUR BEHARRA (ha)	1,53
Abelgorriak	
Elikatzeko buru kopurua (urte osoan)	13
Abelgorri buruak (kop./urtean)	13
Abelgorri haragi produkzioa (kg./urtean)	3.830
OROTARA LUR BEHARRA (ha)	5,38
Esne behiak	
Elikatzeko buru kopurua (urte osoan)	4
Behi-esne produkzioa (litro/urtean)	35.582
OROTARA LUR BEHARRA (ha)	2,22

74.700 arrautza



4.100 buru



36 buru



13 buru



35.600 litro




Oharrak: estimazioa, biztanleko kontsumoak erredu ekologiko (arrautzak) edo jasangarri batean udalerrian asetzeko.

Iturria: GAINDEGIA eta EHNE Bizkaia.



8.3. LAN UNITATEAK ELIKAGAIEN AUTOHORNIKUNTZAN

LAN UNITATE KOPURUA, BALIZKO ESZENATOKI DESBERDINETAN.
ERRIGOITI.



(*) Baratzegintza eta frutagintzan zuzeneko salerosketa bidez edo bitarteko kostu txikiekin gordinen 1.500 €/hilean jasotzeko irizpidea aintzat hartu da. Abeltzaintzan, aldiz, eredu ekologiko eta zuzeneko salerosketa batean 2016/04/21an argitaraturiko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren* 75. alean zehazturiko koefizienteen arabera kalkulatu da.

Autohornikuntza
egoera batek
behintzat
12 lanpostu
sortuko lituzke,
baldintza
egokietan.

Udalerriko elikagaien eskaria asetzeko produkzio guztia bertan kokatuko balitz, baratzegintzan 8 bat lanpostu, frutagintzan 2 lanpostu eta abeltzaintzan lanpostu bat sortuko lirateke. Kalkulu honek lansari duin bat aintzat hartzen du, eta egungo kontsumoa eta elikagaien prezioaren gainean egina dago. Baliteke, beraz, balizko autohornikuntza egoera batek lanpostu gehiagoren sorrera ahalbidetzea.

Autohornikuntza egoeraz harago, eta azaldutako metodologiaren arabera, udalerriko lur egoki guztiak lehen sektorerara bideratuko balira, 385 bat lanpostu sortzeko aukera legoke, jarduera anitzetarako egokiak diren lurren kasuan baratzegintza eta frutagintza lehenetsiz. Baratzegintzan bakarrik, 232 lanpostutik gora sortzea posible litzateke.

LAN UNITATE KOPURUA, BALIZKO ESZENATOKI DESBERDINETAN.
ERRIGOITI.

	Autohornikuntza	Soberakina	OROTARA
Baratzegintza	8	224	232
Frutagintza	2	67	69
Abeltzaintza	1	82	84
OROTARA	12	373	385

Iturria: EHNE eta GAINDEGIA.